



Basaburuko Udala
CIF P 3104900 J
31866-Jauntsarats (Nafarroa)

2023KO MAIATZAREN 17AN BASABURUKO UDALAK EGINDAKO EZ OHIKO OSOKO BILKURAREN AKTA

Jauntsaratsen (Basaburuan), 2023ko Maiatzaren 17an, goizeko 12:30etan, ondoren izendatzen diren jaun andereak bildu dira, ohiko bilkuran, legearen arabera bideratutako deialdia eginda, Esther Lakasta Perez Ilzarbe alkatearen lehendakaritzapean, eta Lucia Beloqui Iriarte, udal idazkariaren laguntzarekin.

BERTARATUAK: Xabier Azpiroz, Julen Beunza eta Santos Etxegia.

BERTARATU EZ DIRENAK: M^a Mar Ansorena, Ricardo Arangoa eta Olatz Dorai.

12:30etan lehendakariak bilkura hasitzat eman du eta gai zerrendan dauden gaiak lantzeari ekin zaio.

GAI ZERRENDA

1.- Berueteko 12. Poligonoko 548. Lursailean kanpamentu turistikoa jartzeko plan bereziaren behin behineko onespena.

Alkateak azaltzen du, Nafar Gobernuak eskatu bezala sustatzaileak aurkeztu zuela dokumentazio gehigarria, udal arkitektoak aztertu du eta baieztatu txostena egin du. Kontutan hartuta aurkeztutakorekin, hasierako dokumentazio aldatzen dela, (egokitu denez Nafar Gobernuak eskatutakoari), berriro behin behineko onespena eman behar zaio aurkeztutako dokumentazioari

Udal arkitektoak egindako txostena irakurtzen du alkateak eta bildutakoek aho batez ondoren zehazten den erabakia hartzen dute:

- **Behin behineko onespena ematea, Berueteko 12. Poligonoko 548. Lursailean kanpamentu turistikoa jartzeko plan bereziari eta Lurralde eta Paisai Zerbitzura bidaltzea.**

- **Erabaki hau sustatzaileari jakinarazi.**

2.- Langabetuen kontratazioa.

Alkateak azaltzen du, langabetuen eskaerak aurkezteko epea bukatu zela eta aurkeztutakoen artean balorazioa egin, horien artean puntuazio altuena jaso dutenengatik, batzuk lanean daudenez, azkenean kontratatukoak hauek izango dira: maiatzaren 17an lanean hasteko Carmelo Mariezkurrena, Ernesto Viguri eta Roberto Fernandez.

Ondoren ekainaren 5ean Oier Urriza hasiko da.

Dirulaguntzarako aurkeztuko den proiektua udalerriko gunek berdeak eta turistikoak mantentzen egitea izango da.

Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute 2023ko langabetuen dirulaguntza eskatzea eta bertara aurkezteko Basaburuko gunek berdeak eta turistikoak egokitzeko proiektua .

Erabaki hau Nafarroako Enplegu Zerbitzura jakinarazi.

Web orrian jarriko dira aurkeztutako balorazioaren zerrendak, datuen babeserako legea kontutan hartuz.

3.- Udala eta Dorrea Gaztandegia, hitzarmena urbanizazioko obren inguruan.

Alkateak irakurtzen du hitzarmena, bertan bi aldeek adosten dute, lehenik urbanizazioko lehen fase honetarako Dorrearen fosa erabiltzea ur zikinak kudeatzeko, bestetik obrak egiteko desjabetu behar den azalera eta Dorreak ordaindu beharko lituzkeen gastuak sarbidea hobetzeko balio antzekoa izango dutela eta bukatzeko urbanizazioan sortzen diren lursailen mugakideak izango dutela lehentasuna industriaguneko lursailen esleipenean, beste eskatzaileekin baldintza berdinetan.

Beti ere hitzarmenean agertzen den moduan desjabetzaren azaleraren balorazio ekonomikoa egin beharko du udalak eta ere sarbidearen gastuaren hainbanakoa.

Hortaz bildutakoek aho batez onartzen dute irakurritako hitzarmena eta erabaki hau Dorrea Gaztandegiari jakinaraztea adosten dute.

Eta gai gehiago aztertzeko ez dagoenez arratsaldeko 13:30 direnean bilera amaitut zat eman da eta idazkariak horrela izan dela ziurtatzen du.